



Oteizaren kaxa beltza irekiz.– Jorge Oteiza artistaren ibilbide eta lanetan oinarritutako emanaldia oholtzaratu zuen larunbatean Kresala dantza taldeak, Manuel Lekuona kultur etxean. Bizi izan zen artean, artista gipuzkoarrak hainbat ekarpen egin zizkion euskal kulturari. Hil zen Oteiza, baina hark utzitako ondareak bizi-bizi jarraitzen du gaur egun: poesia eta saiakera sorkuntzak, ikerketa, haurren heziketa estetikoak, asmo esperimentalak, bizi proiektu pertsonalak... Horiek denak aintzat hartuta, 'Oteizaren kaxa beltza' izeneko ikuskizuna sortu dute Kresalako kideek. Ireki egin zuten kutxa hori larunbat arratsaldean, kultur etxean; aretora bertaratu ziren ikusle guztiek –lepo zegoen auditorioa– gogotik gozatu zuten dantza taldeak taularatutako ikuskizunarekin, ordubetez. Aipatu lana duela ia bi urte estreinatu zuen Kresalak, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ordutik, hainbat aretotan taularatu du emanaldia. Asteburu honetan beste hitzordu pare bat dituzte herritarrek, gaztetxoek bereziki, kultur etxean bertan. Ostiralean 'Un espíritu Burlón' antzezlanak ikusi ahalko dute, 19:30ean; larunbatean, 'Pinto, pinto' lanak gozatu ahalko dute, 17:00etan.

3 HONDAKINAK EH Bilduk eskatuko du herriko auzoetako soterratuak ixteko

EH Bilduk mozio bat aurkeztuko du biharko ohiko udalbatzarrean; zaborra gordetzeko soterratuaren ingurukoa izango da. Koalizio abertzaleak argudiatu du arratoiak erakartzen dituztela soterratuak, eta animalia horiek hainbat arazo sortzen dituztela herrian: argitasun falta, esaterako. Talde guztien artean konponbidea adostea proposatuko dute.

5 ISLADA EZKUTATUAK Islada Ezkutatuak taldearen eskertza ekitaldi jendetsua

1936ko altxamendu militarra eta horrek Lasarte-Orian eragin zituen ikertzen ari da Islada Ezkutatuak taldea, 2011. urteaz geroztik. Lan eskerge hori egiteko ezinbestekoak dituzte garai horiek euren azaletan bizitu zituzten herritarren bizi-penak: aurten testigantza eman dutenei eskerrak emateko ekitaldia egin zuen atzo taldeak.



8 LILATOIA Herriko 104 emakumek hartu dute parte Lilatoian

Donostia erdiguneko kaleek more kolorea hartu zuten atzo. Euskal Herri osotik etorritako 5.000 emakumek Lilatoian 27. edizioan egin zuten lasterka, genero berdintasuna eta emakumeen eskubideak errei-bindikatuz. Eguraldi baldintza txarrak ez ziren oztopo izan aldarri horiek korrika egin bitartean zabaltzeko.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

CHURRUCA
formación

Aita Larroka kalea 7 behea
Gros auzoa, Donostia
Tel. 943 42 40 44 - 636 555 265
www.churrucaformacion.com

- FORMAKUNTZA ESPEZIALIZATUA -

**OPOSAKETA ETA POLTSAK
OSATZEKO EPEAK ZABALIK**

Udaltzaingoa, Ertzaintza, Suhiltzaile,
Justizia, Administrazioa, Correos,
Osasungintza (Aragoi)

Praktikak Gipuzkoan
egiteko

**eskaintza zabala heziketa
kualifikatuan**

EUSKARA

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik, saria

Andoni Amonarriz, Izar Agirretxe eta Mikel Gonzalez herritarrek jaso dute diru-laguntza

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egiteagatik saria jaso dute Andoni Amonarriz, Izar Agirretxe eta Mikel Gonzalez herritarrek. Hiru izen horiek atera ziren kutxatik, orain dela hilabete egindako zozketan: euskaraz ikasleko aukera ematen duten autoeskoletako ikasle denen artean egiten da. 2010etik daramate egitasmo hori sustatzen Buruntzaldeako udalerrietako euskara zerbitzuek. Hurrengo urtean ere egingo dutela aurreratu dute.

Lasarte, Mugica eta Izarra autoeskoletan –azken honek herriko egoitza itxi berri du– eskaini diete euren ikasleei gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera. Zentroak hiru direnez, beste hainbeste sari banatu dituzte gure herrian.

Duela hilabete egindako zozketan hiru izen atera zituzten kutxatik: Andoni Amonarriz, Izar Agirretxe –ezin izan zuen ekitaldira joan eta haren anaia Oihanek jaso zuen saria– eta Mikel Gonzalez. Pasa den asteko ostiralean jaso zituzten euren sariak Euskara batzordeko buru Jon Antxordokiren eskutik, udaletxe berrian.

Andoni Amonarrizek Lasarte autoeskoletan atera du gidabaimenaren atal teorikoa, eta 302,50 euroko laguntza jaso du. Izar Agirretxek eta Mikel Gonzalezek, aldiz, Izarran. Bi horietako bakoitzak 229,90 euro jaso ditu.

113 ikasle Buruntzaldean

Eskualdeko euskara zerbitzuek emandako datuen arabera, 113 ikasle atera zuten gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz 2015ean. Horietatik 21 lasarte-oriatarrek dira.

2010ean sortu zuten egitasmoa euskara zerbitzuek. 34 ikasle atera zuten urte horretan gidabaimenaren atal



Lasarte-Oriako autoeskoletako hiru ikasle jaso dituzte aurten sariak, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeagatik.

teorikoa euskaraz –formazioa eta azterketa–. Ordutik sei urte igaro dira eta kopuru horiek nabarmen egin dute gora: hirukoiztu egin da ikasle kopurua.

2011n 60 ikasle hartu zuten gidabaimena euskaraz ateratzearen bidea. 2012an aurrenekoz gairitu zen 100 estudianteen langa: 112 izan

ziren denera. Hurrengo ikasurteetan hazten jarraitu zuen kopuruak: 2013an 135 izan ziren, eta 140 2014an –orain arteko kopururik altuena hori izan da–. 2015eko datuak zertxobait apalagoak izan badira ere, 100 ikasle langa gairitzen jarraitzen dute.

Buruntzaldeko euskara zerbitzuek berriki adierazi

dutenez, proiektua gauzatzen jarraitzeko asmoa daukate etorkizunean.

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnietako hainbat autoeskolak hartzen dute parte egitasmoan. Sariak banatzeko ekitaldi bana egin dute aipatutako herrietako euskara zerbitzuetako eta autoeskoletako ordezkariak.

Harrera familiak behar dira saharar haurrentzat



'Oporrak bakean' egitasmoan parte hartzen duten harrera familiek programaren berri eman zuten ostegunean.

Ostegunean 'Oporrak Bakean' ekimeneko harrera familiek udan saharar haurren bat hartu nahi dituzten herritarrekin bildu eta programaren berri eman zieten.

Saharar haurrek zergatik etortzen dituzten eta kanpamentuetatik kanpo egoteak zein onura ekartzen dien azaldu zuten.

Era berean, normalean San Pedro Jaietarako datozela, Ttakunek Udalaren laguntzaz antolatutako Udako Txokoe-tan parte hartzen dutela edo haietaz bereziki antolatzen diren hainbat ekintza ere badaudela jakitera eman zieten.

Hori guztiaz gain, haurrek ekartzeko jarraitu beharreko pausoak eta bete beharreko dokumentuak ere aipatu zituzten.


Esperientzia

Aurreko urteetan etorritako haurrei buruz ere mintzatu ziren eta haien esperientzia kontatu zuten harrera familia-kideek. Saharar haur bat hartzeak dakarren kultur eta balio aberastasuna azpimarratu zuten.

Hurbildu ziren herritarrek haien zalantzak eta kezkak azaleratzeko aukera ere izan zuten eta harrera familia-kideek horiei erantzun zieten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martin Vicioso,
Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

HONDAKINAK

Soterratuak ixteko eskatuko du EH Bilduk

Zaborra botatzeko soterratuak sortutako arazoak salatu dituzte

Lasarte-Oriako zenbait auzotan gauez argirik ez dago. Zerbitzuetako batzordeen arabera, arratoiek kabletua karraskatzearen ondorioetako bat da. Hori dela eta, EH Bilduk biharko Udaltzarrean mozioa aurkeztuko du Udaltzari soterratuak ixteko eskatuz, eta talde guztien arteko altematiba bat bilatuko dutela azaldu dute.



EH Bilduko Pablo Barrio eta Leire Elizegi arazoak sortu dituen soterratu batean.

TXINTXARRI

EH Bilduk agerraldia egin zuen ostiral goizean Lasarte-Oriako zaborra gordetzeko soterratuaren egoera kaxkarra salatu nahian.

Azaldu dutenez, azken hilabetetan herritar ugari kezkatu da herriko argitasun faltarekin eta kaleetan ikusi ahal diren arratoiekin.

Mozioa

Biharko Udaltzarrean mozioa aurkeztuko dutela adierazi du koalizioak. Lehenik eta behin, soterratuak ixteko beharra ikusten dute arratoiek sortzen dituzten arazo ugariak direla eta.

Erantzun bateratua emateko ahalegina egingo dutela adierazi zuten EH Bilduko Pablo Barriok eta Leire Elizegik. Alderdi politikoko eta herri-

ko eragileen artean egoera aztertu eta konponbidea ematea proposatuko dute Udaltzarrean.

“Soterratuak itxi eta alternatiba adostarekin batera, herritarrok hondakinak birziklatzeko dugun eskubide eta beharra aurrera eramateko bideak” bilatzea eskatuko du EH Bilduk.

Buruhauste ugari

Zaborra botatzeko sistema honek buruhauste ugari sortzen ditu EH Bilduren aburuz. Batetik, ekonomikoak. Izan ere, arratoien arazoa edota matxurak konpontzeak sortzen dituen kostuak handiak dira.

Bestetik, soterratuaren inguruan “zikinkeria eta usai-

nak” sortzen dira, “arraioientzat bizileku egokia izateaz gain”.

Konponbide adostua

Esan bezala, erantzun bateratua ematearen beharra nabarmendu dute EH Bilduko ordezkariak.

“Lehenik eta behin, arazoa aztertu beharko litzateke”. Onartu dute sistema “erosoa” dela. Izan ere, zaborra lur azpian gorde eta edozein ordutan atera daiteke.

Hala ere, “sortzen dituen arazoak”, soterratuaren sistema gaitzitzaren aldeko deia luzatu diete dagoeneko alderdi eta eragileei.

Biharko Udaltzarrean eztabaidatuko dute gaia ordezkariaren taldeek.

UDALBATZARRA

Bidegorri sarearen hobekuntza eztabaidatuko dute Udaltzarrean

Ohiko bilkura egingo du Lasarte-Oriako Udaltzarrek bihar, 18:30ean.

Abenduko eta urtarrileko batzarretako akten onarpena izango da saioko lehenengo puntua. 2015eko kredituak aldatzeko txostenak aurkeztuko ditu Udalak.

EH Bilduk eta EAJk mozio bana proposatuko dute. Lehenek zaborra botatzeko soterratuak ixteari buruzkoa, eta bigarrenek herriko bidegorri sarea hobetzearen ingurukoa.

Lau puntu horiek landu ostean, herritarrek euren galdera eta erreguak egiteko txanda etorriko da. Oposizioko taldeek ere euren zalantzak planteatu ahalko dituzte.

ELKARBIZI

Bizikidetzaren inguruko lehenengo ikastaroa, larunbatean Villa Mirentxun

Larunbat honetan ekingo diote Elkorbizi egitasmoko kideek bizikidetzaren inguruko ikastaroak egiteari. Lasarte-Oriako izango da lehenengoa, Villa Mirentxun, 11:00etan. Xavier Minguez psikologia doktorea eta Imanol Lizarralde historia doktorea izango dira hizlariak. *‘Indarkeriaren kontakizuna. Osaeta eta bideraketa, memoria edo/eta historiaren bitartez?’* da solasaldiaren izenburua.

Antolatzaileek gogorarazi dute kursoan parte hartzeko plazarik mugatuak direla –20 pertsona–. Izena emateko epea asteazkenean itxiko dute. Interesa dutenek ganboiturri@gmail.com helbide elektronikora idatzi beharko dute.

KUADRILLATEGI

'Kuadrillategi sutan' kontzertu-sorta larunbatean, Loidibarren frontoian

Kuadrillategi egitasmoko gazte batzuek, DBH 4. mailakoek zehazki, ekitaldi musikala antolatu dute larunbat honetarako: 'Kuadrillategi sutan'. Kontzertu-sorta bat prestatu dute, Loidibarren frontoian. 20:30ean hasiko dira emanaldiak, eta 00:30ak arte luzatu. Skakeo, The Garax eta DJ Katxondeok giroa dute arratsalde-gau parteak.

Ttakin Kultur elkarteak jakinarazi duenez, euro bat balioa dute sarrerek. Era berean, frontoira joaten direnek mokadutxo bat jateko parada edukiko dute: gazteek pintxoak eta freskagarriak salduko dituzte. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Udalari, emandako laguntzagatik.

GAZTE KLUBA

Postre lehiaketa ostiralean

Gazte Klubeko lagunek azken urteetan arrakasta handia duen ekintza burutuko dute, postre lehiaketa.

Lehiaketa ostiral honetan egingo da, Okendo plazan. 9 eta 12 urte bitarteko gazteek parte hartuko ahalko dute taldeka. Taldeak 4-5 pertsonakoak izan behar dute.

Informazio gehiago eta izen-ematea 943 37 14 48 telefonon, aisia@ttakun.eus helbide elektronikokoan edo Ttakuneko bulegoan eskainiko da. Izena emateko azken eguna asteazkena izango da.

KZGUNEAK

Teknologia berriei buruzko ikastaroak

KZgunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskaintzen du martxo eta apirilaren zehar. Lasarte-Oriako Gaztekluban du egoitza KZguneak; ikastaroak ere bertan emango dituzte.

‘Oinarriko Internet’, ‘Ikasi zure Smartphone edo Tableta erabiltzen’, ‘Sare Sozialak 2.0. Komunika zaitez Sare Sozialen bitartez’, ‘Googles Apps. Google aplikazioak gestio pertsonalerako’, ‘Argazki Ukitua GIMP erabiliz’, ‘Wordpress: zure webgunea sortu’, ‘Ofimatika orokorra’, ‘Android sistema eragilea’ eta Internet KZgunea kursoa’ dira eskaintzen diren ikastaroak. Teknologia berriak dituzte denek oinarrian.

Aurrez izena eman behar da eta kzgunea.net web orriaren bitartez egin behar da.

Informazio gehiago nahi duten herritarrek Lasarte-Oriako Gaztekluban dagoen bulegora hurbildu behar dute 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara edo telefonoz dei daiteke bestela, 943 02 36 60 zenbakira.

Eskoletan energia eta ingurugiroa aztertzen

Agenda 21 programaren barnean Lasarte-Oriako LHko ikasleek ingurugiroari buruzko gogoetak egingo dituzte.

‘Energia eta mugikortasuna’ blokea landuko dute bi urtetan. Aurten, energiaren inguruko diagnostiko eta ekintzak egingo dituzte, adinari egokitutakoak.

Behar energetikoak eta argiaren kutsadura aztertuko dituzte, beste gai askoren artean.

Ordezkariekin bilkura

Ondorio batzuetara iritsiko dira Lasarte-Oriako ikasleak, eta horien arabera konpromisoak hartuko dituzte.

Azken urteetan egin duten bezala, Udaltzarrean aurrean aurkezteko aukera



2015ean Udaltzarrekin entzunaldia egin zuten herriko ikastetxeetako ikasleak.

izango dute. Izan ere, ekainean entzunaldi berezia egingo dute pleno aretoan.

Azterketa osoa

Agenda 21 proiektuak atal ezberdinak lantzen ditu. Batetik, ikasketak kurrikuluma bera aztertuko dute, eta hobekun-

tza plana egingo diote.

Ondoren, gaiari buruzko parte hartzea sustatuko dute herrian.

Inguruari buruzko gai ugari landu dituzte urte hauetan. Besteak beste, ura, bio-niztasuna, aniztasun kulturala eta elikadura.

Mendebaldeko Saharako errealitatea ezagutzen

Andoni Mujika herritarrak argazki-diaporama eskaini zuen larunbat eguerdian, Xirimirin

Larunbat eguerdian Xirimiri elkartera bertaratu zirenek Sahara Mendebaldera bidaiatu zuten, Andoni Mujika herritarraren eskutik. Argazki-diaporama ikusi zuen aurrena, saharar te goxoa dastatu bitartean. Ondoren, bertako dantza batez gozatu zuten. 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' zikloaren baitakoa izan zen ekitaldia.

TXINTXARRI

Andoni Mujikak eta familiak urte dezente harremana dute Mendebaldeko Sahararekin. 2000n hasi zen: urte horretan, ume saharar bat hartu zuten etxean, hainbat hilabetez. 2008ra arte, behin baino gehiagotan errepikatu dute esperientzia. Denera, lau familiatako umeek ezagutu dute Lasarte-Oria, Mujika-Calongetarren etxera etorrita.

Saharar horiek ezagutu dute gure herria, eta Andoni Mujikaren familiakoek ere bai, kanpamenduetara bisitak egin baitituzte. Andoni bera falta zen soilik. Aspalditik eduki du gogoia Sahara ezagutzeko, baina pasa den urtera arte ezin izan du joan, egutegi arazoengatik. Iazko udan, Iker Ortega lagunarekin hitz egin, eta biek adostu zuten bidaia egingo zutela. Hala izan zen: abenduko zubian Aaiun kanpalekua bisitatu zuten, sei egunez.

Larunbatean azaldu zituen bidaiaren nondik-norakoak Mujikak, Xirimirin. 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' egitasmoaren baitakoa izan zen ekitaldia.

40 urte, eta igotzen

Iazko bidaiako esperientzia pertsonala baino lehen, Mendebaldeko Sahararen historiari buruzko zertzelada batzuk eman zituen Mujikak. Duela 40 urte, Marokok herrialdeko zati handi bat inbaditu zuen, Ameriketako Estatu Batuen laguntzarekin: "gune aberatse-na", Mujikak zehaztu zuenez. Orduz geroztik, "zatituta" geratu dira sahararrak, "euren jatorrizko herrialdetik kanpo".

Inbasioaren ondorioz, herri sahararrak beste bizileku bat topatu behar izan zuten. Argelek lur batzuk utzi zizkien – basamortua da ia guztia – eta errefuxiatu gunea eraiki zuten bertan. "Bertan bizi, bizi daiteke, baina baldintzak oso gogorrrak dira. Sahararrak ordea, are gogorragoak: 40 urte daramatzate jada borrokan, noizbait euren herrialdera bueltatzeko itxaropenarekin. Behin-behineko egoera bat behar zuena lau hamarkadaz luzatu da jada".

Mendebaldeko Sahara okupatu eta zortzi urtera, 1983an, 2.700 kilometro luze dituen harresia altxa zuen Marokok, okupatutako zatia bestetik bereizi eta sahararrak bueltatzea saihesteko. Abenduan egin zuen bidaiaren zehar horma horrek inpresionatu zuen gehien Mujika. "Oso militarizatu dago gunea, pertsonen kontrako minak daude han eta hemen", aipatu zuen.

1976an SEAD Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa sortu zen. Frenete Polisarioaren esku dago gobernua, eta hasieratik aldarrikapen bera egiten dute: erreferenduma ospatzea, herri sahararraren autodeterminazio eskubideaz galdetzeko. Oraindik ez zaie aitortu esku-bide hori.

Esperientzia pertsonala

Arestian esan bezala, abenduko zubian joan ziren Andoni Mujika eta Iker Ortega Aaiun kanpalekura. Mujikak kontatu zuenez, bisitariak iristen zirenean, megafonia bidez ematen zuten horren berri. Gaur egun ordea, telefonoa daukate ia denek eta tresna hori erabiltzen dute. Bi herritarrek ez zeukaten bisitatu behar



Hitzaldia amaitu eta gero, Xirimira bertaraturakoek familia-argazkia atera zuten.



Fatu eta Mailima Abahai sahararrek bertako dantza tradizional bat eskaini zuten.

zituzten familien zenbakiak, eta denbora dexentez itxaron behar izan zuten, haraino eramane zituen txoferrarekin. "Goizeko bostak aldera iritsi ginen familiarengana", gogoratu zuen.

Lasarteoriatar gazteek ez zekiten sahararren hizkuntzan hitz egiten, eta bertakoek erdaraz hitz solte batzuk baino ez. "Esaten ziguten ez

zekitela gaztelaniaz hitz egiten, baina gero ez ziren isiltzen! 40 bat hitz zekizkiten, eta ederki moldatu ginen horiekin", esan zuen Mujikak. "Harrera oso ona egin ziguten herritarrek", gaineratu zuen.

Esperientzia oso aberatsa izan zela aipatu zuen Mujikak, baina hein batean "penatuta" itzuli zela ere bai: "Sei egun igaro genituen bertan,

baina denbora gehiagoz egoteko gogoarekin geratu ginen. Bueltatuko naiz, ziur". Era berean, aipatu zuen gomen-dagarria dela haiek bizitako esperientzia, eta herritarrak animatu zituen bidaia egitera.

Tea eta dantza

Mujikaren diaporamaz gozatu bitartean, Xirimirira bertaraturakoen te saharar goxoa dastatu zuten. Herrian bizi diren saharar batzuek prestatu zuten, elkartean bertan. Hori eta gero, herrialde sahararrek dantza tradizional bat eskaini zuten Fatu eta Mailima Abahaik.

Erakusketa Jalgin

Larunbateko argazki-diaporamaz gozatu ezin izan zutenak Jalgi Kafe Antzokira joan daitezke, Garikoitz Lasaren erakusketa ikustera. Saharako kanpalekuetan egondakoa da donostiarrak; bertan ateratako irudiekin egin du bilduma.

Martxo osoan zehar egongo da ikusgai erakusketa.



Zorionak Aitzol!

Aitzol Iriondo Yarza 14884
MOULINS-YZEURE

Centre Pénitentiaire
Les Godets

B.P. 24
03 401 Yzeure Cédex
FRANCE



“Memoriaren batailaren irabazleei” eskertza

Islada Ezkutatuak taldeak ekitaldi xumea egin zuen atzo udalbatzar aretoan

Islada Ezkutatuak taldeak ekitaldia egin zuen atzo eguerdian, udalbatzar aretoan; eskerrak eman zizkien hainbat herritarrei, 1936ko altxamendu militarra eta ondorengo urteei buruzko testigantzak emateagatik aurten. Denetik eduki zuen: taldekideen zein erakundetako ordezkarien hitzaldiak, musika Joseba Tapiaren eskutik, historia lezio-txo bat eta, ongi bukatzeko, hamaiketako eder bat.

TXINTXARRI

Eladia Gubia Segurado. Juana eta Genatxo Yurrita Barrenetxea. Maria Luisa Arruti Ilarramendi. Josefa Sarriegi Agirre. Miguel Iturrioz Amundarain. Inaxi Otegi Egia. Martin Goenaga. Jose Ignacio Zaldua Alkorta. Isabel Herrera Blanco. Itziar Yarza Etxenike. Pilar Aburuza Garro. Maria Eugenia Monge Aburuza.

Herritar horiei denei eskerrak eman zizkien atzo Islada Ezkutatuak taldeak, udalbatzar aretoan egin duen ekitaldian. Haiengana zuzendu zen Mailu Arruti: “Norbaitek esan zuen moduan, gerrak ez dira irabazten inoiz, Galdu egiten dira beti. Batailak irabazten omen dira. Zuek, memoriaren batailaren irabazleak zarete”.

Bost urte daramatza Islada Ezkutatuak taldeak garai historiko horrek Lasarte-Orian eragin zituen ondorioak ikeritzen. Lan eskerga hori egiteko, beharrezkoak dituzte hamarkada horiek euren azalean bizitu zituztenen testigantzak. “Urte latz horietan gertatutako sarraskiak memoriari gorde eta guri transmititzeko gai izan zarete, zaila den arren. Horregatik egin dugu gaurko ekitaldia, eman diguzuen laguntza guztia eskertzeko”, aipatu zuen.

Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren eskertzak

Atzo omenduak izan ziren herritarrengana zuzendu zen Jesus Maria Zaballos alkatea: “Gerraren ostean isilik egotera behartuak izan baziren ere, euren minarekin bizitzen ikasi zuten, itxaropen batekin: egunen batean justizia egitea. Haiei ukatu zieten guk eraiki behar dugu orain, beharizan bat baita memoria berreskuratzea, inoiz ez dadin errepika orduan gertatutakoa”. Islada Ezkutatuak taldearen lana ere aitortu zuen, azpimarratuz “funtsezkoa” dela memoria kolektiboa berreraikitzeke.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendari Maribel Vaquerok ere taldeak zein herritarren ekarpenak eskertu zituen. “Zuei esker ari gara ezagutzen garai horretan gertatutakoa, eta hori oso garrantzitsua da”. Vaque-

rok zehaztu duenez, “memoriaren bitartez” eraiki behar da erreparazioa”.

Musika eta historia

Joseba Tapia herriko musikariak bi abestirekin girotu zuen eguerdiko ekitaldia. ‘Tximela’ ezizenez ezagututako gizon tolosar batek idatzitako bi bertso ekarri zituen udalbatzar aretoan. Gitarra jo bitartean egin zuen kantuan.

Ostean, Islada Ezkutatuakeko kide Joxea Mugaruzak historia lezio-txo bat eman zuen udalbatzar aretoan, 1936. urtean jazotakoari erreferentzia eginez. Esan zuen okerra dela ‘Gerra Zibila’ izenez deitzea, urte horretan gertatutakoa “estatu kolpe bat” izan baitzen. Walter Benjamin goitizenez ezagututako filosofo alemaniar baten esaldia ere eduki zuen ahotan: “Zailagoa da herritar anonimoen memoria ohoratzea, ospetsuenena baino”. Hortik tiraka, onartu zuen hori ez dela lan erraza, baina hortan jardutea “bizitza, historia eta duintasun-eskola” dela taldeko kideentzat.

Omenduak

Lehen paragrafoan aipatutako herritarrek kristalezko botila bat jaso zuten Islada Ezkutatuakeko hainbat kideren eskutik, irribarrea ahoan eta satisfazioa barrenean.

Eladia Gubiak hitz egin zuen denen izenean: “Eskerrak eman nahi dizkiogu Islada Ezkutatuak taldeari, gugatik egiten ari diren lan guztiagatik. Ez duzue utzi gure memoria ahanzturan erortzen; belaunaldi berriek gertatu zena jakiteko ezinbestekoa da hori. Eskerrik asko”.

Horren ostean, mokadutxo bat jan zuten denek, alboko aretoan: patata-tortilla, kroketak, etab. Ekitaldia ez zen hor bukatu, ordea: hainbat argazki zeuden eskegita areto horretako hormetan, eta boligrafoak mahaian. Islada Ezkutatuakeko kideek lanean jarri zituzten herritarrek, irudi-tako hainbat pertsona identifikatu nahian. Hainbat urtez ezkutuan eta isilean egon ondotik, memoria eraikitzeke ordua da orain. Ez dago galtzeko denborarik.



Islada Ezkutatuakek ikerketan daramatzen bost urteetan zehar testigantzak eman dituzten herritarrek argazkia atera zuten atzo.



“Hemen dagoen ikasteko metodologiak erakarri ninduen gehien”

Xabier Mujika Urruzola Lasarte-Oriakoa da eta Mekanikako Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan.

Zergatik aukeratu duzu Mekanikako Ingeniaritza gradua?

Garbi nuen arlo teknologikoa nuela gogoko eta Ingeniaritza munduak erakartzen ninduen. Ate irekietara joan nintzen eta bertan azaldutakoarekin nahiko bideratuta utzi nuen nire azkeneko erabakia. Argi geratu zitzaidan mekanikako graduak tailer eta diseinu munduarekin erlazio handia zeukala, beste graduak ez bezala. Hori dela eta, hiru urte ondoren mekanikako gradua egiten jarraitzen dut eta gustura hartutako erabakiarekin.

Zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEA?

Beste gertuko unibertsitateekin alderatuz, ikaste metodo ezberdinak erabiltzen dituelako. Aipatutako metodologia hori erakargarria iruditu zitzaidan, hau da, lan ebaluaketa jarraia, urtero bi proiektu egitea edota ikasten ari naizen bitartean ikasketekin erlaziozko lana egiteko aukera, bai unibertsitateko ikerketa lerroetan edota enpresetan.

Nola definituko zenuke ikasteko metodologia?

Seihileko bakoitzean proiektuak egiten ditugu eta horietan diziplinartekotasuna lantzen dugu. Seihileko horretan lantzen ditugun ikasgai gehienak sartzen dira arazoaren konpontzeko soluzioan eta, askotan, ordurarte landu gabekoak ere ikasi behar izaten ditugu. Bestalde, irakasleak gertutasuna transmititzen du; izan ere, beti dago tutoreren bat zure progresioa aztertzen eta, behar izanez gero, zuzentzen.

Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?

Aurten tenisean jarduten duten pertsonen beraien entrenamendutan teniseko pilota jaurtigailu bat diseinatu behar izan dugu. Aparailuak besteak beste: esker-eskuin, gora-behera eta translazio mugimenduak egiteko gai izan behar du. Baina hori ez da guztia, diseinua eraginkorragoa izan dadin, moduren bat aurkitu behar dugu teniseko pilotak ez diren pilotak ahala edo nola baztertzeko jaurti baino lehenago. Guzti hau burutzeko elementu kopurua eta aurrekontua mugatuta genuen. Proiektuak beti emandako arazoa aztertzei hasi eta soluzioaren inplementazioraino joaten gara, jarraitzen dugu prozesua ondorengo pausutan laburtu dezakegu: arazoa aztertu, helburuak finkatu, planifikazioa egin, merkaturen analisia, soluzio-alternatibak aurkitu, aukeratutako soluzioaren diseinua (eragin-gailuen aukeraketa, pilotaren ibilbidearen analisia, egituren zurruntasuna eta erresistentzia analisia, AMFE -Análisis modal de fallos y efectos- eta beste hainbat azterketa). Proiektuak beti jendaurrean azaldu eta defentsarekin amaitzen ditugu. Esan nahi nuke seihileko proiektuak beti ekipoen egiten ditugula eta hori aberatsa da, baina ez beti errazagoa.



FUTBOLA.

Emakumezko erregionalak, garaipenez garaipen

Azken lau partiduak irabazi dituzte jarraian; azkena, larunbatean, Urnietaren aurka (1-0)

Ostadar SKTk 1-0 irabazi zion larunbat arratsaldean Urnietari, eta azkenaldiko bolada onarekin jarraitzen dute: azkeneko lau norgehiagokak irabazi dituzte jarraian. Igoera fase bikaina burutzen ari da talde urdin-beltza; seigarrenak dira sailkapenean, 16 punturekin. Asteburu honetan bilatuko dute bosgarrena, Zumaiakoren kontra. Emaitza eta puntuak gaintik dago, ordea, futboleko jokatu bitartean ahalik eta gehien gozatzeko helburua. Horretan ari dira emakumezko erregionalak.

TXINTXARRI

Denboraldia hasi zenez, entrenatzaile eta jokalariek behin eta berriro aipatu dute futboleko jokatzeko gozatzeko delako haiei helburu nagusia. Baloia ostikoak emanez disfrutatzearaz gain, irabazi ere egiten dute asteburu askotan. Liga erregularra hirugarren postuan amaitu zuten, eta Euskal Ligara igotzeko jokatzeko sailkatu. Igoera fase honetan ere ederki ari dira: seigarren postuan da taldea, 16 punturekin. Azkeneko 12ak jarraian irabazi ditu.

Azkeneko hiru puntuak atzo poltsikoratu zituzten Julen Ormazabal eta Iker Artetxek entrenatutako jokalariek, sailkapeneko hirugarren

sailkatua den Urnietaren kontra. Emaitzek laguntzen dutenean, jokalarien konfiantzak gora egin ohi du, eta berdegunean hobeto aritzen dira ia beti. Horrela erakutsi zuten herritarrek atzokoan, lehenengo zatian batez ere. Primeran mugitu zuten baloia alde batetik bestera, eta aukera garbienak eurenak izan ziren. Markagailuan aurreratzea ere lortu zuten, atsedendira joan aurretik. Irishek sartu zuten 1-0ekoa.

Bigarren zati borrokatua

Norgehiagoka berriro ere orerkatzeko asmoz atera ziren urnietarrak Michelingo zelaira, eta haiek izan ziren nagusi aurreneko 15-20 minutuetan. Dena den, kanpoko taldeak ezin izan zuten berdinketaren



Partidu borrokatua izan zen Ostadar eta Urnietaren artekoa. Etxekoentzat izan ziren hiru puntuak.

gola sartu, eta minutu-tarte hori igaro ostean Ostadar bere zelaitik ateratzen eta aukerak sortzen hasi zen berriro ere. Egari zor, bi taldeek eduki zituzten golen bat gehiago sartzeko abaguneak, baina ez zen gehiago mugitu markagailua.

Atzoko hiru puntuekin, 16 ditu jada talde urdin-beltzak. Hamar partidu jokatu ditu orain arte: bost irabazi ditu, lau galdu eta bakarra berdindu. Larunbatean Zumaiakoren aurka jokatu dute.

Jardunaldiko emaitzak

Eguraldi txarrari desafio eginenez, herriko futbol talde guztiek jokatu dute asteburuan.

Ohorezko Erregional mailako taldeak 2-1 irabazi zion Getariako Ketari, Aitor Manero eta Rober Gutierrezek sartutako gol ikusgarriei esker. 39 punturekin, gora begira ari dira urdin-beltzak.

Jubenilen Ohorezko mailan, Ostadarrek bana berdindu zuten Touringen aurka. 33 punturekin, seigarren postuan

dira Javi Solchagak zuzendutako jokalariek.

Gainontzeko emaitzak: Texas Lasartearra 5-2 Alle Punta (erregional 1go maila, kopa); Ostadar SKT 0-1 Añorga KKE (1go jubena, igoera); Antiguoko KE 3-1 Ostadar SKT (Kadeteen Ohorezko maila); Ostadar SKT 3-1 Euskalduna SD (1go kadetea kopa); Elgoibar CD 1-3 Ostadar SKT (Infantilen Ohorezko maila, txapeladunen fasea); Ostadar SKT 2-1 Añorga (infantil txiki).

ESKOLA KIROLA.

Herriko neska-mutilak urpoloan murgiltzen

Multikirolan aritzen diren MLH 3 eta 4. mailako gaztetxoek ur-kirol desberdinak ezagutu zituzten larunbatean, Udako Kiroldegiko igerilekuan.

Urpoloa da horietako bat. Buruntzaldea IKT taldeko eta Eskola Kirola egitasmo arduradunen xedea honakoa da: gaztetxoek erakustea igeriketaren barnean badaudela hainbat modalitate, eta euren gan horiek egiteko grina piztea. Aipatu dutenez, zehazteke dituzte ordutegiak eta espa-

zioak; instalazioen arduradunekin hitz egin behar dute eta funtzionamendua zehaztu. Igeriketa sinkronizatua lantzea ere ez dute bazterten.

Larunbateko topaketan 24 gaztetxo aritu ziren, plisti-plasta, Buruntzaldea IKT, Hernani Igeriketa Taldeko eta Ttakun KEko kideen begiradapean, 9:30etik 11:30era. Buruntzaldea IKTri eskerrak eman nahi dizkio Eskola Kirolako arduradun Iñaki Aristondok, "emandako laguntza guztiagatik".



BOLEIBOLA.

Lauko finalerako sailkatu nahi du Lasarte BHIk

Arraroa izan da bukatu berri den asteburua Lasarte BHI boleibol taldearentzat. Larunbatean Summa Aldapetaren aurka neurtu behar zituen indarrak, baina ez zuten jokatu norgehiagoka azkenean, talde donostiarrek bost jokalarik besterik ez zituelako -gutxienez sei behar dira-. Gauzak horrela, izerdi tantarik bota gabe patrikaratu zuten garaipena herritarrek.

Ez zaizkio batere gaizki etorriko hiru puntu horiek: lehenengo sei taldeen artean geratu behar dute, hurrengo faserako sailkatzeko. Jardunaldi baten faltan egin dituzte etxeko lanak.

Bigarren fase horretako aurreneko lau taldeek lau finala jokatuko lukete. Taldeko kideek adierazi dutenez, "zaila" izango da hori, baina ez dute etsiko, inondik ere. Aurrekariak ezin hobekak dira: Gipuzkoako hirugarrenak izan ziren pasaden denboraldian, eta azpitxapeladunak 13/14 sasoian. Jubenil mailan lehiatzen dira.



Lauko finalerako sailkatzea du helburu Lasarte-Usurbil BHIk.

LEIRE VEGA

Bost urtez boleibolean

Orain dela bost urte sortu zen Lasarte-Usurbil BHI boleibol taldea. Asier Arrazolak egiten ditu entrenatzaile lanak. Bederatzi jokalarik osatzen dute: Ainhoa Gonzalez, Leire Vega, Jaione Arruti, Irene Fernandez, Sara Prieto, Camila Ortiz, Sasha Suntsova eta Ane Martinek.

Astelehen eta asteazkenetan entrenatzen dute; 16:30etik

18:00ak arte eta 17:00etatik 18:30era arte, hurrenez hurren. Urtarrilan hasi zuten denboraldia; lau partidu irabazi eta hiru galdu dituzte orain arte. 11 punturekin, bosgarrenak dira Gipuzkoako txapelketan.

Jokalariek azaldu dutenez, lau finalerako sailkatuko ez balira, denboraldia amaitutzat emango lukete. Hori ez zaie burutik pasa ere egiten ordea; den-dena emango dute.

Agenda

Aste osoan zehar



Emakumeen nazioarteko eguna

Martxoaren 8a, emakumeen nazioareko eguna dela eta, hainbat eragileek egitarau ezberdinak antolatu dituzte hurrengo egunetarako. Ekintza eskaintza zabala eta gustu guztientzarako. Honetaz gain, martxoaren 8an, elkarretaratzea izango da 12:00etan Okendo plazan. Asteburuan ere izango da ekintzarik.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Astelehena 7, 19:00etan

Topagunera hurbiltzen direnek kafe tertulian parte hartzeko aukera izango dute. Lasarte Moria egitarauaren barruko ekintza.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Asteartea 8, 11:00etatik aurrera
'Euskadiko emakume garrantzitsuak' erakusketa ikusgai izango da.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Asteartea 8, 18:00etan

Maria Morales idazle andoaindarrak 'La consciencia del tiempo?' liburua- ren aurkezpena.

BIYAK BAT ELKARTEA

Asteazkena 9, 17:00etan

Nagore Vazquez psikologoak gidatuta, umoreterapia tailerra egingo da. Jolasa, emozioa eta umorea landuko dituzte.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Asteazkena 9, 19:00etan

Identitate ez normatiboen inguruko 'El test de la vida' dokumentala eskaini eta Amets Jordan Arrietarekin solasaldia. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

MANUEL LEKUONA, HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna 10, 18:00etan

Etxeko txikiei zuzendutako 'Batak pan-pinak, besteak superheroiak' saioa izango da Kontu Kantoiko lagun eskutik.

OKENDO PLAZA

Osteguna 10, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako dantza saioa eta jarraian, poteo feminista. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

MANUEL LEKUONA, HITZALDI ARETOA

Osteguna 10, 19:30ean

Ines Bengoak 'Hotzikara' ipuin erotikoa

irukurriko du. Helduei zuzendutako ekintza.

LOIDI BARREN PILOTALEKUA

Ostirala 11, 18:00etan

Pala txapelketa eta ondoren, afaria Xirimiri elkartearen. Txartelak 10 eurotan salgai tabernatan. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala 11, 19:30ean

Mabel Arciniega Debagoieneko Ospitaleko Urgentzietako sendagileak elikadura eta minbiziaren arteko loturaz hitz egingo du. Ostean, afaria eta dantzaldia izango dira. Semblante Andaluz elkarteak antolatua.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 11, 21:00etan

Lan eta Lan antzerki taldeak 'Un espíritu burlon' antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 12, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Bendita calamidad' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 13, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Zootropolis' animaziozko filma 3Dn ikusgai izango da. Sarrera, 4,80 euro



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 13, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'Bendita calamidad' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 12, 17:00etan

Anita Maravillas taldeak 'Pintto, pintto' haur antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Martxo amaiera arte

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' hitzaldi zikloaren barruan, Garikoitz Lasa donostiarrak egindako Tindoufeko kanpamentuetako irudien erakusketa izango da ikusgai.

Herritarren txokoa

Biyak Bat Sevilla eta Caceresera bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

Biyak Bat irteera Errioxara

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Errioxako Pradejon herrira irteera antolatu du. Bidaia martxoaren 15ean, asteartean, izango da.

Pradejonean txanpiñoi eta perretxi-koak hazten diren zentro didaktiko eta ikus-entzunezkoa bisitatuko dute. Bazkaria Hostal Venecian izango da.

Irteeran parte hartzeko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 45 euro.

Izena ematea elkartearen egoitzeko bulegoan egingo da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Sarean

Euskal herritarren harreman sexual eta afektiboari buruzko online inkesta anonimoa

Kaixomaitiak, 2007an sortutako Euskaldunon Harremanetarako Guneak, 2015eko abenduan berri zuten proiektua eta webgunea eta oraingoan, 9. urteurrenaren karira online inkesta anonimo bat jarri du abian Euskal Herrian bizi dugun egoera sexual / afektiboa eta iritziak zein diren ezagutu eta horren inguruan gogoeta egiteko helburuarekin. Galdetegia apirilaren amaiera bitartean osatu ahal izango da euskara, gaztelera eta frantsesetik eta kaixomaitiaren webgune eta sare sozialetan egongo da eskuragarri.

Inkesta 18 urtez gorako euskal herritarrei zuzendua dago eta erantzunen anonimotasuna bermatuko da; SurveyMonkey inkestarako plataforma bidez egingo da eta ez da ez izenik ez eta IP helbiderik jasoko. Gutxienez 1000 erantzun espero dituzte, emaitza fidagarriak izateko lagin sendo bat behar dutela azpimarratu baitute. Era berean, Aztiker Ikerlanean aholkularitza teknikoarekin garatu dute inkestaren diseinua eta jasotako emaitzak elkarte honekin batera aztertuko dituzte.

73 galderako galdetegia 8 minututan bete daiteke eta harremanen gaia hainbat ikuspegiatik jorratzen du: egoera afektiboa, sexuala, harremanak eta internet, leialtasuna, etab. Galdera batzuk apur bat pertsonalak izan daitezke eta, segur aski, askori zail egingo zaie erantzutea; baina, horixe da helburua, jendeak tabuak utzi eta bakoitzaren errealitatea zein den partekatu eta ezagutzea, aipatu anonimotasunaren bermearekin.



Aldarrikapenerako bost kilometro

Lasarte-Oriako 104 emakumek egin dute lasterka Donostiako 27. Lilatoian

Euskal Herri osotik etorritako 5.000 emakumek osatutako more koloreko mareak Donostiako kaleak hartu zituen atzo. Lilatoian 27. edizioan hartu zuten parte horiek guztiek; 104 izan ziren Lasarte-Oriatik joandako korrikalariak. Senior kategorian Maite Guerrero hernaniarrak egin zuen marka onena; beteranoenean berriz, Lourdes Artola zizurkildarrak. Baina hori gutxienezkoa da.

TXINTXARRI

Aurreikusitako baino egun lehenago itxi behar izan zuten antolatzaileek lasterketan izena emateko epea, dagoeneko banatu zituztelako 5.000 dortsalak. Urtetik urtera gero eta emakume gehiago hartzen dute parte, korrika egiteko zapatilak soinean; urtetik urtera, gero eta emakume gehiago burutzen dituzte, Donostiako erdigunean barrena, aldarrikapenerako bost kilometroak.

Kirola izan daiteke genero arteko berdintasuna eta emakumeen eskubideen aldarria egiteko lanabesetako bat. Hori erakutsi zuten atzokoan Lilatoian aritu ziren emakumeek. Bulebarretik irten, erdiguneko zenbait kale zeharkatu eta Bulebarrean bertan helmugaratu ziren. Lagun koadrilak,

ama-alabak, senideak... 5.000 emakumek osatutako marea moreak hartu zituen hiriburuko kaleak atzo, eguraldi baldintza ezin kaskarragoei aurre eginez –euria egin zuen goian behean, baita kazkabarra ere–.

104 lasarteoriatar

Herriko 104 emakumek hartu dute parte Lilatoian aurten goizean goizetik hasi ziren Donostiarantz abiatzen; trena hartzea erabaki zuten askok. Ane Labaka izan zen horietako bat. “Hasi eta berehala, euria kazkabar bilakatu da. Hala ere, giro oso ona egon da lasterketan zehar”, aipatzen zuen helmugaratu eta gero, telefonoz. Maite Salazar izan zen herriar azkarrena; 20'57"ko denbora egin zuen.

Lasterkarietako animoak ematera joandakoen kopuru ofi-



Goizean goizetik, trenez joan ziren Donostiarantz hainbat herriko korrikalari.

ziazalik ez dago, baina makina bat izan ziren atzoko goiza horretan eman zutenak, eguraldi kaskarrari desafio eginez. Txaloak, animo-oihuak, afixak... eskura zituzten baliabide denak erabili zituzten ikusleek, aterkia ere eusten zuten bitartean. Korrikalariak, hala ere, motibazio estrarik

apenas behar izaten dute; Lilatoian bitartez emakumeen eskubideen aldarriak lau haizetara zabaltzea bada nahikoa akuilu.

Datuek erakusten dute: iaz baino 1.000 lasterkari gehiago aritu ziren atzo. Dortsalak proba jokatu baino zenbait aste lehenago agortu ziren.

Hasiera orduarekin kexu

Lilatoia lasterketa 1989an egin zen lehenengoz. 2016ko edizioa arte, goizeko hamaiketan irteten ziren lasterkariak. Aurten, aldiz, ordu bete lehenago hasi dira lasterketa, 10:00etan. Donostiako Mugikortasun sailak hartu du erabakia.

Plazandreak talde feministak karta ireki bat idatzi zuen orain dela bi aste, Mugikortasun zinegotzi Pilar Aranari zuzendutakoa. “Aurtengora arteko edizio denetan 11:00etan hasi da lasterketa. Ordu tege logiko bat, korrika egitera irten aurretik hainbat gauza antolatu behar izaten dituzten emakumeentzat. Aurten, ordea, ordu bete aurretik erabaki duzu, lasterketan irteten garenok ez dezagun trafi-

koa oztopa. Berri bikaina, ardu-ra familiarrak dituzten emakumeentzat”, dio talde feministak.

“Lasterketako giroa berezia da, hunkigarria, parte hartzen duten emakume guztientzat. Jakin nahiko genuke ea Mugikortasun sailak kontutan hartu duen ekitaldian zehar sortzen den giroa, korrika egin aurretik eta ondoren”, aipatzen dute.

Lasterketaren antolatzaileek ere adierazi dute gustatuko litzaikeela hasiera-ordua 11:00ak izatera itzultzea.

Pala txapelketa ostiralean

Lasarteko Talde feministak eta ‘Palan Prest’ emakume taldeak erreibindikazioa eta kirola uztartzen dituen jardura bat prestatu dute ostiralerako: emakumezkoen pala txapelketa. Zehaztu dutenez, Loidibarraren frontoian elkartuko dira, 18:00etan. Bikoteak zozketa bidez egingo dituzte. Pilota astintzen aritu ostean, emakumeen afaria egingo dute, Xirimirin, 21:00etan. Hamar euro balio dute txartelek; ohiko tabernetan egongo dira salgai.



Eguraldi baldintza kaskarrak ez ziren oztopo izan atzoko Lilatoian lasterka egin zuten 5.000 emakumeentzat.

PEDRO MARTINEZ

www.multioplicasgipuzkoa.com

2. betaurrekoak DOAN

GAMA ALTUKO mó progresiboak erosita

197€

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15

Tel.: 943 37 74 55

LASARTE

MULTIÓPTICAS

lehen zerbitzu optikoetan